



Aspaldian bihurtu nintzen euskaldun, eta nire bizitzan urte gehiagotan izan naiz euskaldun erdaldun hutsa baino. Nik momentu batean erabaki nuen euskalduna izan nahi nuela. Eta gainera ez zait batere kostatu. Hain da ederra esperientzia... Hain pozik nengoen ez zitzaidala batere kosta. Hizkuntza oso polita iruditzen zitzaidan. Nik euskaldun jendea ez nuen benetan ezagutzen. Niretzat unibertso berri bat ezagutzea izan zen, eta denetarik irakurtzen nuen. Kontua zen ikastea.

Batzuetan kosta egiten zait niri ere ulertzea, baina oso ederra eta atsegina izan zen euskara ikastea.

Nik beti esan dut abantaila bat daukadala euskara etxetik dakitenekin: eurek nik sentitu nuen plazer hori ez dutela inoiz eduki. Beste unibertso bat aurkitu nuen eta niretzat euskara ikastea plazer hutsezko prozesua izan zen.

Bestetik, euskaldun berria izan arren, euskaldun oso izatea posible dela erakusteko ere balio du. Euskararen kontra esaten zirenak, ikastezina eta oso zaila zela, argudio hutsal eta gezurrezkoak direla ikusi da. Euskaldun izateko aukera hartzen baduzu posible da, horixe dela posible!

ANDOLIN EGUZKITZA